




ZER
ALDIZKARIA

445. zenbakia
2018 OTSAILA

Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

LEKEITIAK ERRALDOIA RESURRECCION MARIA DE AZKUE II



Iparragirre
eta Gernikako
arbola

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2017-2018 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 50. IKASTAROA
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 9an

**50. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 9 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



Lekeitiar erraldoia Resurreccion Maria de Azkue II

Klaudio Barroeta

6-Azkue abade.

Euskaltzaindiak 1957an Azkueri eskeñi eutsen omenaldian, on Resurreccionen alderdi au azteertu eban Andres E. Mañarikuak bertan irakurritako lan batetan. An esandakoaz gañera beste xeatasun batzuk emotera noa Azkueren alderdi au laburrean ikusteko. 1888.eko Uztaillean abadetu ostean, Iraillaren 29an emon eban Meza Barria. Eta abade urre eztiak ospatzeko 1938an jaioterriko Udalari zuzendu eutsen Te Deum bat iru aots eta organurako egiña. Azkue abadeak ez eban iñongo Parrokiagaz loturarik euki. 1889an Aingeruen Zaindarien Institutua sortu eben Rafaela Ibarrararen kapellau izendatua izan zan. 1894an Toursera joan arte iraun eban kapellautza onetan. Orduan ezagutu eban Azkue, izekoaren etxean, Julio Urkijok, gero Azkuerekin batera ainbat lan eta ikerketa burutu ebazanak.

Azkueren biografian ezagutzen ez dan alderdi bat zera da, Jesusen Lagundian sartzeko izan ebazan asmoak. 1895.eko Abenduaren 10ean Rafael de Leon jaunari idazten deutson gutunen an diñotso:” nire siñaturaren ondoan ipiñiko nebazan bearbada S. J. inisial opagarriak Alfonso (Azkueren anai nagusia) ilda ez baegoan”. Eusebio Maria aita bezala Lekeitioko Nautika Eskolan katedratikoa izan zan au, 1894.eko Apirillaren 28an il zan. Eta Jesusen Lagundian sartzeko ostopoa zera zan: Alfonsoren eriotza ostean, amaren ardura bere lepora etorkola. Josulagunak, ostera, on Resurreccion Lagundira eroango ebelakoan egozan. 1894.eko Iraillaren 13an Azkueri idazten deutso Aita Tomas Ipiñak: ”Urriaren asieran nobiziadoan ikusteaz asko poztuko nintzake”. Eta gure lekeitiarra bide ori artzeko benetan zirikatuta egoan Aita Ipiñak gutun batetan, 1894.eko Abenduaren 23.ekoan, esandakoaren araberan.

Ainbat josulagunekin arremanetan ebillen Azkue garai aretan, tartean Aita Jose Inazio Arana zalarik; izkuntzaritzako gaiak ugari erabiltzen ebezan bien arteko gutunetan. Baña erdi lotan geratu zan bokaziñoa ama il eta gero arte. 1914an “Urlo” opera estreinatukeran ekonomi eta



arte arloetako ondamenagaitik jasan eban naigabe ikaragarria eta Loiolara jo eban; baña Zumaian Txomin Agirrek artutako erabaki ori obetu ausnartzea eskatu eutson eta Bilborako itzultze bidean sartu zan.

Azkue abadearen alderdi garrantzitsu bat bere sermoiak betetzen dabe. 1899an asita eta Toursera joan arte bost urteen zear Bilboko Santiago Basilikan, igandero goizeko seiretako mezatan, udan izan ezik, sermoia euskeraz emoten eban. Orrez gañeko ainbat parroketatik euskeraz itz egiteko eukan erreztasun eta mintzaira ederragaitik jai, irurren eta beste antzeko elizkizunetan sermoiak egitera deitua izaten zan. Azkuek emondako sermoietatik batzuen batzuk imprimatuak izan ziran, adibidez, Begoñan 1890.eko San Jose egunean emon ebana. 1895.eko Uztaillaren 21ean Gernikan emondakoa, gero 1896.ean Jose Astuik Jaungoikoa ta Foruak izenburu liburu batetan argitara emon ebana, eta Ordiziako Euskal jaietan 1904.eko Iraillaren 18an emondakoa, Etxegarai ta Muxika jaunek iri onen Monografian argitaratu ebana.

Abade izateak eta musikarako eukan joerak antolatu ziran Eliz Musikazko Jardunaldi ia guztietan partaide izate-ra bultzatu eben, Bilbon 1896an antolatutakotik asita. 1907.eko Apirillean, Bruselan egoanez, Valladoliden Goikotxea eta Otaño adizkideek eratutako Jardunaldietara joaterik ez eban eduki, ezta urrengo urtean Sevillan eratutakoetara, orduan Kolonian egoalako. Baña Bartzelonan Eliz Musikazko III. Batzarra, 1912.eko Azaraoren 21.etik 24 arte ospatzen danean, bertan agertzen jaku partaide. 1913an Baionako Batzarra be badoa, Azaroaren 21.etik 23 arte eta jakiña, 1928.eko Azaroaren 19.etik 22 arte Gazteizen eratutakoara, itzaldi bat emen emonaz gañera.

1900eko Iraillaren asierako egunetan Begoñako Ama Birjiñaren Bureskunde Kanonikoaren Jaiak egin ziran Bilbon, eta Musika Azpibatzearen Buru izatez aparte, berak euskertu eban Bederatziurrena eta asiera egunerako Otizkantu bat konposatu eban aots eta organurako. Eta Iraillaren 3an Es-labaren Meza bat zuzendu eban Azkuek Begoñako Basilikan eta 8an berak idatzitako olerkiarekin Buenabentura Zapirain adizkide lekeitiarrak musikatu eban Ereserkia kantatu zan.

Egindako ostera askoren artean bi egin ebazan Palestinarra: lenengoan 1902.eko Apirillaren batetik Maiatzaren 10 arte. Euskal Erromerian partaide zalarik egin ebanean,


gertaldi onetarako Euskalerritik Palestinara ereserkia konposatu eban; bigarrena 1911.eko Maiatzean egin eban. Ostera guztietan ez eban abade izaera aiztuten eta eliz ospakizunetan parte artzen eban. Adibidez musikazko ikasketak amaitu ebazanean Kolonian 1909.eko Maiatzean, bertan iraun eban Abuztuaren leen egunak arte Nazioarteko Eukaristi Batzarrean egoteko. 1923an Erroman be egon zan amazazpi egunen zear.

Alemaniko egotaldietan adiskide kuttun bat, Beda Kleinschmidt frantziskotarra, eta oneri, 1932an il ostean Sevillako La Voz de San Antonio aldizkarian doluzko nekrologia bat eskeñi eutson. 1928.eko udean frantzizkotar onegaz bidaia bat egin eban Wesfaliatik Konnersreuteraño eta an “Teresa estigmatizatua ezagutzeko eta berakin arremonetan ipinteko aukera pozgarria eduki neban”. Urrengo urtean La estigmatizada de Konnersreuth liburuskara argitaratu eban Barzelonan.

Josulaguna izatea ezinezkoa ikusi ondoren Gazteizko Katedralean Txantre izatera saiatu zan Azkue. 1914.eko Urriaren 5an Gasteizko Apezpikuari gutun bat zuzendu eutson aurreko ikustaldi batzuetan autagaien artean egoala gogoratuz.” Akademia sortzeko asmotan Diputazioen aurrean agertzeko goigizon legez” lanbide ori baliogarria izango leikiola uste eban Azkuek. Gazteizko Txantre izateko gogoaren aldeko arrazoi geiago emoten deuskuz Azkuek orduan Segobiako Apezpiku zan on Remigio Gandasegi 1914.eko Urriaren 13an idazten deutson gutunean:” musikari lez urrats andi bat izatetik aparte,

burubelarri lanean jarrituteko bear ebazan dirulaguntzak lortzeko egokia izango zala”. 1913an Nuntzioak Santiago Compostelako Txantre izatea eskeñi eutson baña ez eban onartu.

Abadetuta urrengo urtean “Gernikako Arbolari Olerki bat” saritzeko epaimaiko izateko dei bat artu eban Gernikatik. Carlos de Borbon jaunaren Foru Zinaldiaren omenaldirako Batzorderengandik jator-kon deia. 1889.eko Apirillaren 21ean abade lez ezin zala eginkizun politiku batetan partaide izan erantzun eutsen Azkuek. Dirudienez politiku bati omenez eginkizuna zuzentzeak atzeratzen eban Azkue, urte batzuk geroago, 1895an eta bertan Gernikan, foru aldeko sermoi batetan parte artu eban eta.





Ez eban osterak ukatu Euskal Jai batzuetan epaimaiko izatea, adibidez, 1893an Azpeitian Bersolari Leiaketarako epaimaikoa izan zanean, edo 1903.eko Iraillean Aramaion edo urte bereko Urrian Donapaleuen, edo 1904.eko Iraillean Donostian Euskalerriko Oituri buruzko jaietan.

Iru abade ekintza ziran Azkuarentzat gogoko: Apaizteriaren Batasun Apostolikoa, Apaiz Ostegunen Erakundea eta espainiar atzerriratuenganako laguntza. Bigarren aipaturako ekintzaz Goi Salbatzeallean Kongregazionekoekin arremon estu euki ebazan eta Abade Egue-neko Erakundeari iru liburuxka zuzendu eutsozan, bat bizkaieraz, bestea gipuzkeraz eta irugarrena gastelaniaz, eta orrez gañera Ereserki bat.

Jesusen Teresa Donarekiko debozio berezia eukan eta oneri be Ereserki bat zuzendu eutson.

7-Azkue argitarazle.

Bizente Goikoetxea adiskideari eraturako omenaldi barruan Azkuek emon eban berbaldian idatzita itxi euskun: "Abadetu nintzan urtean La Abeja (Erle) izeneko aldizkaritxu bat argitaratu genuen lau edo bost lagun artean". La-

gun oneik, berak esaten deuskunez, Silberio Etxebarria, Antonio Arginzoniz, Sabino Arana-Goiri eta besteren bat izan ziran. Aldizkari onetan argitaratu ebazan Azkuek, 1889an asita, bere len lanak, bata Peru matraka ta Pedranton, kondaketa atsegiña. Bizi laburra izan eban aldizkari onek, sei ale urten ondoren 1890.eko Maiatzean desagertu zan.

Zazpi urte geroago ordurako ekintza arriskugarria zan bati ekin eutson Azkuek, Euskalzale asterokoa, euskera utsean eta berak bakarrik argitaraturikoa. Naiz eta aldizkariaren idazketa lana ia berak bakarrik leporatu, orduko euskal idazleetatik oberen lankidetzan lortu eban. Bertan izenpetu ebazan on Resurrezionek bere lanak Eketa, Basozale bat, Euskalzale, Txirrist eta Vascofilo izenordeekin. Astekari onek iraun eban 1897.etik 1899.eko Abendurarte. Azken urte onetako Iraillean eta euskera utsean lanak argitaratzeagaitik, gaztelaniara itzuli barik, eun pesetako zigorragaz isundu eban Azkue gobernuko agintariet, itzultzerak beartuz. 1900.eko Otaillaren 8an argitaraldiaren kopurua eskatu eutson Gobernadore Zibillak eta egun berean erantzun eutson Azkuek "nagusikeria eta erabaki iraingarriak ez ebazala onartu gure" eta argitarapena itzita eukala.

1902.eko Otsaillaren 5an beste aldizkari barri bat kaleratu eban Azkuek, Ibaizabal, bizkaieraz eta gipuzkeraz idatzita, urrengo urte bietan argitaratu zana. Naiz eta praktikoki aldizkariaren zuzendaria bera izan ofizialki Ebaristo Bustintza "Kirikiño" zan, ordurako Azkuerekin egitamu pedagogikoetan bat etorrena.

Euskalzale aldizkarian argitara emon eban Azkuek lenengoz Pedro Inazio Barrutiaren Gabonetako Ikuskizuna. Migel Biguri jaunaren liburutegian agertu zan XVIII, mendeko antzerki au eta Mondragoetik igorri eutson Azkueri kopia bat Juan Carlos Gerrak 1897.eko Abenduaren 10ean gutun batez. Aldizkariaren 50 eta 51, Aleetan argitaratzera leiatu zan Azkue. Aurreko urtean, 1896an, iñoren lan literarioak argitaratzen asita egoan Azkue, liburu einekoak, argitalpen sail onetan bere aitaren lan poetikoa Parnasorako bidea izenburuarekin leen liburu legez Astuiren moldiztegia inprimatuz. 1897an Euskalzalaren moldiztegia eraikitzen dabenean Euskalzalen liburutegia

izena emoten dautso saillari eta Pedro Antonio Añibarroren Eskuliburua argitaratzen dau. Gero imprimategi onetatik kaleratuko dira Juan Antonio Mogelen Konfessio ona eta Juan Antonio Ubillosen Kristau doktriñberri ekarlea. 1899an Juan Antono Mogelen Peru Abarka argitartzen dau leenengo argitalpen elebiduna emonaz (euskerazko leena Elizaldek eginda eukan Durangon 1881an). Idazle onen Sermoi eskuizkribuak argitaratzeko asmoa be baeukan Azkuek eta Gazteizko Apezpikuagandik baimena lortuta eukan 1901.eko Abenduare 16an, baña beste zeregin batzuk eta Euskerazaleren moldiztegia desagertzeak galerazi eutsoen proiektu a burutzea. Beste idazle batzuen textuegaz, ots Añibarro eta Mogekekaz, Meza entzukera bi liburuxka argitaratu eban 1898an.

8-Azkue idazle.

Bere lan literarioa, Antoine D'Abbadie jaunari zuzendua, 28 urte ebazala idatzi eban Azkuek: Bein da betiko, 1893an Bilboko Miserkordia Etxean argitaratu eutsoena. Irakurgai liburu au urtearen erdi aldean kaleratuta egoan Arturo Kanpionek Uztaillearen 25an eskuratu ebalá adierazten dau. Bizkaieraz (ez-

kerreko orri aldetan) eta Lekeitioko euskalkian (eskuñeko orrialdetan) argitaratu eban. 1897an Euskelzale aldizkari asieratik argitaratu ebazan pasadizo, txiste, irazkiñak etabar, gero bere moldiztegian Txirristadak izenburuko liburu batean barriro atara ebazan. Beste lan batzuetan emongo dau debora irugarren liburu literarioa argitaratu arte. Iztegi, Kantategi eta Operagintzak beteko dabez luzero Azkueren egunak 1918.eko iraillaren 20an, Lekeitioko oporraldian, gipuzkeraz idatzitako Ardi galdua elabarriaren itzaurrea izenpetu arte; Gezala ta Rochelten irudiekaz argitaratuko dau urte berean. "Arteka idatzitako" elabari onen gaztelaniazko itzulpena Bergarako El Rosario moldiztegian argitaratu zan 1919an. Argitaratu barik itzi ebazan Azkuek beste lan literario bi: Latsibi elabarria eta Kerpisen Kristoren Antzbidea-itzulpena.

Euskal literaturari Azkuek emon eutson frutua ugariagoa da, noski, baña eun orrialdetik gorakoak bakarrik aipatu dodaz. Ipuñak, kontaketak, zarzuelak, antzerkiak, olerkiak, bilduteko eta idazlan osoen argitalpen batetan emoteko beste askorenak baño meritu geiago dabenak; egunen baten lan au Euskaltzaindiak egingo dabelakoan nago.



Iparragirre eta Gernikako arbola

Zenon Uriguen, Pasiotarra



Gazte-aroa.

Jose Maria Iparragirre Balerdi. Urretxu-Gipuzkoan jaioa dogu, 1820an eta gazte urduri ta odol-bizia, alde batera ta bestera ibilliko da mendiko aize mugabakoa lez. Eta etxeratu barik, iñori ezer esan barik, Karlista alderdian izena emon dau. Amalau urte bete barik Arrigorriagan, Bilbo ondoko mendietan, gudaldian zaurituta, ikusten dogu 1834an. 1835 urtean Zumalakarregi ilten da Zegaman. Aldi berean Karlistak menperatu dabe Gernika eta auxe izan zan Iparragirentzat urregorritzko aukera Gernika, arbola santua eta Batzar Etxea ezagutzeko. Geroago Durangon egindako egotaldian, pozik eta gogoz entzun eban “Dantzari Dantza” Garay jaunak egiñiko zoragarrizko musika eta jaia. “Dantzaldi onek eragin bizia sortzen dau bere barruan “Gernikako Arbola” zortziko giroan abestu eta euskal aizetan zabaltzeko. Sasoi onetan ikasi dau kitarra jotzen. Eta European ta gure errian trobador baten moduan dabil bere bertsoak abestutzen eta euskal gizakiaren barne-muiñetan “itxarkundea” berbiztutzen.

Gernika´ko Arbola.

Iparragireren bizitzako gorabera guztiak oso jakingarriak dira. Baña gure asmoa da gai oni buruz xeetasun guztiak ondo argitzea. Gernikako Arbola abesti goragarria 1848an abestu eban Madrid´eko euskal taberna batean. Onako bertso gorenak, egunetik egunera aldakuntzak izaten ditu. Zer egin? Juan Maria Altuna lekeitiarra, musikalaria, eta Iparragirrerren lagunak abesti onen musika, oso egoki atondu eta betirako egiña jarri eta eskuratzen dautso. Gernika´ko Arbola zoragarrizko bertsoak izango dira Euskaldunen irudi bizia, ta gure izaeraren ezaugarria. “Iparragirre´ren bertsoak izango dira gure Eresi obe eziña” “Ereserki onek batuko ditu karlistak, askatasunaren aldekoak, eta liberalak tradizioaren aldekoak”, *“musikak balsa-piztiak otzandu”* “Gernikako Arbola eusko lege-zarraren gorespena da”. Baña bertso eder

onetan argitzen dira aldaketa baten argi-izpiak, leengo lege zarretik erriaren “askatasun eguzkia” eta Aberri Barria sortzeko. *“Eman ta zabal zazu munduan frutua”*

Iparragirre´ren eriotza.

Iparragirre´ren eriotzari buruz egi argi ta garbiak onexek dira:

a) Iparragirre il zan 1881an, Zoza-barro baserrian, Itxason.

b) Ez zan il pozoiatuta.

d) Casares jauna, etxerako medikua, bere ondoan zain egon zan, eta esaten dau “Bronko-neumonia zeukan, biotza nekez baño ondo zegoan.”Ez eukan beste gaitzik?. Ez. Eta ori esaten bada, erabateko guzurre da” *“Bertsolaria jaio egiten da eta bertsotan bizi”*



GERNIKA´KO ARBOLA (Iparragirreren omenez)

Gernika´ko Arbola
da bedeinkatua
Euskaldunen artean
guztiz maitatua
eman ta zabalzazu
munduan frutua
adoratzen zaitugu
Arbola santua.

Milla urte inguru da
esaten dutela
Jainkoak jarri zuela
Gernikan arbola
zaude, bada, zutikan
orain da denpora
eroritzen bazera
Arras galdu gera.

Etzera eroriko
Arbola maitia
baldin portatzen bada
Bizkaiko jentia
Laurak artuko degu
Zurekin partia
pakean bizi dedin
Euskaldun jentia.

Betiko bizi dedin
Jaunari eskatzeko
jarri gaitezen danok
laster belauko
eta biotzetikan
eskatu ezker
arbola biziko da
orain eta gero.

Arbola botatzia
dutela pentsatu
euskal erri guztian
denok badakigu
eta bada jentia
denbora orain degu
atzera jun bagerik
aurrera jokatu.

Beti egongo zera
uda berrikoa
lore aintziñetako
mantxa gabekoa
erruki zaitetz, bada
biotz gurekoa
denbora galdu gabe
emanik frutoa.

Arbolak erantzun du
kontuz bizitzeko
eta biotzetikan
Jaunari eskatzeko
gerrarik nai ez degu
pakea betiko
gure lege zuzenak
emen maitatzeko.

Erregutu diogun
Jaunkoiko Jaunari
pakea emateko
orain eta beti
bai eta indarrare
zerorren lurrari
eta bedenzioa
Euskal erriari.

Jentilak eta kanpaiotsa (Juan Manuel Etxebarria Ayesta)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2017ko sari leiaketa. leen saria

Itzinako azdui mitikoan, Gorbeiatik Orozkorantz dagoan Supelegor koba-zuloaren aurreko landan, neba-arreba bi egozan euren ardiak jagoten, Gabon egun bateko egurdartean.

Eguraldi otza baina ona egiten eban eta ardiak be zoli-zoli ebilzan pago arteko landa-bedar txikia baina gozoa jaten, neguaren asierako egun-argi laburrenean.

Eguerdia eldu zanean, neba-arrebok, Supelegor koba-zuloko atakara urreratu ziran bazkari sikua egiteko asmoz.

Zabaldu lepoko morral-zakutoa, atera gaztaidun otarteko bana, bigilia edo aratuztea gordez eta jateari emon eutsen biak bietara noiz beinka ardo zaatoari txurruplin batzuk eginaz.

Beingobaten egin eben neba-arrebok egun aretako bazkaria baina gose apur bategaz geratzea ohea baino ez zan, etxera itzuli orduan, Gabon gaueko afariari ganosoago ekiteko.


Andik lasterrera, etxera bidea artzeko egozala, neskak alozoko suge bat ikusi eban euren ondoko ogi-apurrak jan guran-edo, eta badi-notso bere nebari:

-I, mutil, begira egik ona, suge andi bat jaukaguk aotik ezpia agirian ia-ia geure ostikopetan ba-eta!

-Ene, bai barriz! -erantzun eutsan nebak-. Dana dalako au suge au nik neuk dominatuko jonat, ikusiko dona!

-Kontuz ibili adi mutil, badaezpada, parte txarrekoren bat izanean be, gaur Gabon eguna joaguk-eta.

Artzain gazteak, itxi bere eskuetako makila meea, artuan pago igar baten barda luze bat eta sugea iltera



joian.

Sugea, bien bitartean, Supelegor kobara barrura sartu jakon eta ango barruko sakonetako estarian burua gorde.

Artzainak aalegin guztiak egin ebazan a sugea jo buru-buruan eta tragetako baina dana alperrik ango iluntasunean.

Alakoren baten, koba-zuloan barrurantz joiala, zer? eta an koba-zuloaren sakon-sakonean jentil endemonino bat aurkitu eban ikatza egosten.

Ikaratu egin zan. Anak dar-dar eukazan bildursartuagaz, bekokian izerdi larria, gorputzean ikara, biotzean taupada estuak eta buruan zer pentsatu andia!

Egoera orretan egoala, ikatz txondorraren ondotik jentilaren berbarots au entzun eban oiartzun eta guzti:

-Ez adi larritu, mutil, ez deuat ezer egingo-eta! Urreratu adi nire neure ikatz txondorrera. Ator eta esidak: "ire aitak egiten al jok nik neuk lako ikatzik?"

-Ez jakiat ba! Baina egur-bardin, danak be antzerakoak izango dozak! -erantzun eutsan artzainak bildurkilik-

-Ba, bardinak diran ala ez jakiteko, artu egik esku biak bete ikatz eta eroan atakako argitara an obeto ikusteko!

Artzain gazteak, artu eban esku biak bete ikatz eta kobaren atakara elduz batera bere arrebari erakutsi eutsan. Arrebak, a altxor ederra ikustean badinotso bere nebari:

-I, mutil, zer dakark ortik barrutik?

-Zer ekarriko jonat ba, jentilak emoneko ikatza!

-Ikatza? -esan eutsan arrebak begiak zabal zabalik-, au urregorria dok ba-eta! Joan adi barrero barrura eta eskatu egiok geiagoko aberatsak izango gozak-eta!

Mutila barrien barriz joan zan kobara barrura eta onan esan eutsan ari jentil ikazginari:

-I, nire aitak ez jok egiten onango ikatzik. Onangorik ez jagok gure errian ez eta gurekoen artean be, erriko ikazginik onenak izan arren. Ardura ez badeua, emongo deustak apur bat geiago nire neure etxeko eta errikoei erakusteko?



-Bai, mutil, zenbat gura eta arexen beste artu, baina kontuz e! or koba sakon sakonean deabrua jagok lo-arrantzaka eta ire zaratetara itzartuten badok, ireak egin jok!

Artzain gaztea, aberastu naiaren aberastu naiaz, fraketako boltsa biak, kolkoa eta sorbaldetatik dingilizka eukan morral-zakutoa betetzen asi zan urregorritz.

Baina, danaguran, zarata andiegiak egin ebazan eta, jakina, deabrua itzartu egin jakon.

Itzartu bakarrik ez, deabrua oso ase-re plantatu jakon eta orroe-zantzoka asi zan burduntzi luze bat eskuetan dauala.

A bai zala larrialdia! Artzainak ez ekian zer egin. Eta estualdian jentilari esan eutsan:

-I, zer egingo joat orain?

-Zer egin? Ba ospa egin emendik leen baino leen zein deabruak iregaz egin! Deabruak arrapatzen baau ireak egin jok betiko! Joan adi agudo, orpoetan ar barik!

Artzainak, itxi bertan beera urregorriok eta kanporako bidea artu eban jentilari esana eginaz.

Kobaren atakara eldu eta bere arreba ikusi ebanean auxe esan eutsan arduraz beterik:

-I, ezin deunat kontatu orain or barruan gertatutakoa, joan adi etxera gautu baino leen eta tertziarako eltzen ez banok Gabon afaria ondo ospatu, nik naikoa jaukanat atzerik ara datorkidan deabruari alde egiten-eta!

Arreba, ikaratu egin zan bere nebaren berbak entzutean baina ikara andiagoak etorri jakozan andik lasterrera deabrua Supelegorreko kobatik urtetan ikusi ebanean.

Neska errukarria negarrez joian etxerantz eta bereengana eldu zanean asi jakien esaten negar-anpuluei eutsi ezinik:

-Ene ama! Gure mutila ortik zear dabil deabruari ospa egiten eta ez dakit Gabon gaua egiteko bizirik etorriko jakun be!

-Ez estutu! - erantzun eutsan aitak-, gure mutila bizkorra da eta ondo eza gutzen dauz basabideak, goizago edo beranduago joko dau etxera. Guk erro-sario errezatuko dogu oitureari jarraituz eta Jaungoikoak gura dauana izan daitela!

Bien bitartean, an ebilzan, guztiz gaututa, artzaina aurretik eta deabrua atzerik ara pagaperik pagape, mendirik mendi eta landarik landa.

Gaueko iluntasunean ez eben alkar ikusten pagaduetan baina alkar barruntatu bai pausuotsean, eta bata gelditzen zanean bestea be bai. Olan ibili ziran luzaroan.

Orduak aurrera joiazan eta mutilak etxera joan gura ebanez Gabon gaua ospatzeko, bere buruari esaten eutsan:

-Zer zuertasun erabiliko joat nik oni deabru oni eskapatzeko? Mugitzen banok, bajatortak gainera. Eta bat batean, a bai, bajakiat zer egin!

Artzainak pago punta batera igon eban eta andik aal dan guztian jaurtin bere morrala.

Deabrua, zarata entzun zan lekura abiatu zan artzaina izango zalakotan baina ezer be ez.

Gauzak orretara, artzaina konturatu zan deabrua apur bat urrundurik egoala eta aal danik eta isilen jaitsi pagotik eta beatzen puntan joian astiro-astiro, katua saguaren atzetik lez.

Alako baten arbolapeak itxi eta ailegatu zan artzaina Orozko parteko landa batera, baina beste arerio bat agertu jakon, ilargia. Ilargipean ikusi egin eikean deabruak eta alaxe egin eban egin be.

Deabrua askoz gorago egoan baina bere zanko luzeakaz atoan arrapatuko eban a mutil gaztea.

Mutilak deabruaren amorru-zaratak entzun ebazanean, ezin dan lekutik be indarrak aterata, aurrera jo eban ur eukalako bere etxea.

Etxekoak be arduraz beterik egozan. Orduak aurrera, Gabon afaria prest baina ez eukien umorerik ospakizunetarako.

Artzain gazteak ezin eban geiago eta deabrua gainera etorkiola konturatzean, zoruan etxun zan abailduta bereak egin ebalu pentsatuz.


Pausu batzuk bakarrik falta jakozala deabruari artzaina arrapatzeko, zer? eta tan-tan-, tan-tan, tan-tan! Orozkoko Olarteko eleizako kanpaiotsa entzun zan, jakina, Gabon gaueko amabietako mezarako kanpaiotsa!

Kanpaiok entzun ziranean, deabrua podere edo aalmen barik geratu zan eta amorruz beterik egon narren, ezin eutsan ezertxo be egin artzain guztiz nekatuari.

Deabruak alaurika alde egiten ebalu ikustean, artzaina, zutundu, Orozkoko Olarteko eleizan Gabon-meza entzun eta bere etxera joan zan bereakaz Gabon gaua ospatzera familiako batasunean.



EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (IV.)



2. ZATIAN.

Sarreratik datorrena.

Omosapiens edo Kromañoien sorkuntza. Goi-Paleolitiko Aldia:

Lenengo arri-landuen aldia da, eta beragandik beste Paleolitiko aldiak berezkatu egiten dira, arriaren erinduzko obekuntzan, gero ta alegin aundiagoetan sartu ziralako, 40.000-9.000 urteko aldi onein bitartean, Afrikan orain 30.000 urte Omosapiensen giza sortuta.

Omosapiensen zabalkuntza:

Omosapienseko giza, 15.000-10.000 gorengo Paleolitikoaren asken⁽¹⁾ denborak edo Arri Aroko aldiak zirenak, izotza urtzean Afrikatik urtenda, Asia ta Europara zabaltzen asi zan euskerazko leen izkuntz, edo len-ereduzko euskerea eta oiñarrizko oitura bardin bategaz, Atlant-Itsasotik Ekialdeko Indiaraiño.

Eta iñorentzat ez liteke izan bear sinis-gogorkeri bat, Omosapiens edo Euskal-Kromañoi giza izan zalako zabaldu zana. Beste-rik, egoan ba ?.



Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoaren aldi artekoa da eta Europaren edesti aurreko aroa, orain 10.000 urte ingururarte.


Aldi onetan esaten dau On-Mielek, Euskaldunak artu ebela gaur daukan giza-itxura, edo Kromañoien itxuratik gaurko itxurara aldatu zala, Paleolitiko-Neolitiko bitartean edo mesolitiko aldi onetan.

Europa aldi orreitan, ainbat epeldu zan eta Omo Sapiens giza, eizan egitez gain, zitu, bii, ale edo fruituak batzen asi zan.

Neolitiko aldia: Mesolitiko edo Epipaleolitiko eta Tupiki⁽²⁾ aldiaren artekoa da.

Omo Sapiens aldi oneitan, arrapari uts izatetik, ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zan, eta orren ondorioz bizileku tinko edo iraunkorretan asi ziran bizitzen, leenengo iriak sortuz.

(1) Gorengo Paleolitikoaren asken denborak, edo arri-aro'ko aldiak zirenak, onantza asita. (2) Tupiki = edad del bronce.



Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak be asi ziran artzen, eta batez be arria lantzeko erabide aipagarrienak.

Neolitiko aldia Ekialde Urbillean orain 9.000 urte asi zan ta Europan 6.000 urte inguru.

Omosapiens: Afrikan sortuta, izkuntz ta euren jakintzan oituratzeko euki eben ekanduzko oiñarri bide-tik asi ziran Asia ta Europatik zabaltzen, *Würm* deritson izotz aldian.

Kromañon giza: 1.868ko urtean Frantziaren Egomendebalaren Dordoñako lurralde inguruan, Madeleineko arpe edo aitzuloan⁽¹⁾ aurkitu ziran orain 30.000 urteko Kromañon gizaren azurrai esaten jako, eta bere oroimenez K.a. 14.000-9.0000 urte bitarte orreri ipini eutsien Madalen-aldiari.

Kromañon giza onek, jakin eban otzari aurre egiten, eta bera agertu zanean, aurreko Neandertalak euren artean ezereztu egin ziran eta sortu zan giza mota au izan zan Asia ta Europatik zabaldu zana gaur arte, bere leen Euskerazko izkuntz azturan.

Zer diñue jakitsuak gaur Euskalerrinari eta Europari buruz ?.

Barandiaran eta Aierbetar On-Joxemiel Jaunak:

Gaurko euskal-gizaren itxura ber-bera 10.000-7.000 urte arteko inguruan artu ebala jakinda, txantxetan esaten eban, Euskalduna bertoko perretxikoen antzera, beti bizi dala emen, beren ikertzaillezko emaitzak alan agertzen dabelako.

Altunatar Jesusek:

Bere azterkuntzazko maixu-lan bi-detik, *Euskal Edesti-Aurreko 150.000 urteak* argitutako liburuan esaten dau: Kromañon gizakia, *WURM* deritxon azkeneko izotz aldiaren ostetik, Madaleniense ta Aziliense arteko denboratan, Afrikatik urtenda, K.a. orain 15.000 urte inguruan agertu zala Omosapiens au, eta bere zabalkuntzan, Neandertalak euren artean ezereztu edo ta urtsutu ebela aurrekoen Europa.

1.868an, Frantziko Ego-Sartaldean, Dordoñako lurraldean eta Perigoreko⁽²⁾ errian dagoan Madalein mendiko Kromagnon aitzuloan, goi-aldiko asieraren giza-azurak aurkitu ziran: Gizon zaar batenak, adiñeko gizon bi, emakume bat eta aurtxo batenak.

Danak buztin gorriagaz margoztuta, zirgillo edo beso ta samako estunakaz⁽³⁾, eta saretxo edo xirristak itsas-maskorrakin⁽⁴⁾ aristatu edo ondozkatuta egon ziranakaz apainduta.

Eta giza-azurak geiago: Frantziko beste lurralde batzuetan, Txekosloba-

(1) Ortik dator Auriñaciense edo Magdaleniense Goiko-Paleolitiko aldian, Musteriense ta Soloutrense arteko denborak diranak eta Magdaleniense izena Madelein mendiko aitzuloaren izena ipini eutsoelako. (2) Edesti aurretik = Eyzies-de-Tayak deitzen zana. (3) Pulseras y collares. (4) Conchas.

kian, erdi-ugarte onetan, Alemanian, Suezian, Italian eta Polonian be aurkitu ziran.

Gizaki onen buru-azurrak, gaur daukagun giza-itxuraren bardiñ-antzekoak ziran eta erooten ebazan apainkeriak, bilbe⁽¹⁾ aundikoak zirala esan eben.

Wennemanntar Teo, germaniar ele-jakintzaren maixua, Fostertar Peter, Kanbridgesko ikastetxe nagusian genetika-ren irakaslea, eta Ameltar Elisabeth berrien idazleak:

Egin dabezan azterraldi saketik, *Spectrun Wisenschf* Aleman aldizkari jakinsuan argitaratu, eta bai Ingalaterrako iztegi nagusian⁽²⁾, auxe da baieztatzen dabena: Europaren oiñarrizko gizartean edo jendearen jenetan euneko zenbakitik, irurogeita amabost Omosapiens edo **euskaldunak dirala**, eta euren oiñarrizko izkuntza **euskerea zala**.

Orretarako jakintsu oneik esaten dabena: Orduko Europaren izotz-urtzean, eiztariak gezaltze orren ondorioz, izotz-oreiñak ta mamutzarren iges-aldian edo atzerakada egitean, euren atsegiñezko giroan egoteko, euskal eiztariak Europatik zabaldu zirala, ta orregaitik aurkitzen dirala Europa guztiko baztarretatik euskerearen oiñarrizko itzak: aran ibar, ur ta abar asko, gero, orduan ezagutzen zan munduko toki-izenetan agertuko direnak.

Or banandu ziran: Bakardadearen aztura denbora ta igaro-bidean leiñu barrien ugaritasunetik, tronkaleko artu-emonetik urruntzen egon zirala, gai eta oiturazko gauzari bakotxak beren ulermeneko sinismenean ulertzen ebazan itzakaz izenak emoten ba eutsezan be, gura naiez izkuntz barriak sortu ebezan,

ta izkuntz izaera orreik izen lez artuta, berezitasunezkoak biurtu ziran.

Orren frogagarri batzuk:

Omosapiens Afrikan sortu eta ugarituta, *Wurm* deritxon azkeneko izotzaldia urtzen asi zanean, orain K.a. 14.000-9.000 urte Magdalenienese ta Azilienese, gorengo Paleolitiko edo arri aroko denboran Europatik zabaldu eta erritu egin zirala euskal izatasunean esaten dabe.

Eta Ekialdekoak euren alderraiezko nastetasunak aundiak izan arren, orregaitik orain be daukiezela eunetik ainbeste goi-maillako antza euren jenetan eta izkuntzetan, gero ikusiko dogun lez.

Zubiaga ta Legarretatar Felixek:

Bere argitaratutako liburuan *Origen y desarrollo del lenguaje*⁽¹⁾ 49n orrialdian esaten dau: Munduko gizartean mintzoeraren jaiocera, eta beren azalkuntza oituraren azkerazko edestian esanda, munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala bere neurri guztietan.


Orregaitik, Euskerazko mintzoera bat lez, Izadiak daukazan irudizko eredu nagusietan ikertu eta ipuin legez adierazi ezker, edesti ta edesti-aurre onena da *Erroma'tar menperatzaillezko katoliko-merkantil norkeriaren aurka*, berezko gizatasunarengaitik iñoz azaldu, esan, edo ta edatsi⁽²⁾ ez dan benetako edestia dalako.

Maixutasunezko lan ederra benetan Felix Zubiaga ta Legarretak egin dauana, euskaldun guztiak eta batez be ja-

(1) Según el vascuence. (2) Azaldu, esan, edo edatsi = describir, decir, contar, narrar, explicar.



(1) Bilbe = evolución. (2) Leen Wilhelm Humboldt elejakitun edo izkuntzalariak eta orain beste jenetista barri batzuk be esan daben antzera.



kitunak irakurri bear leukiena, gure euskal askatasunezko demokraziaren sinismenean sendotu daitezten, eta Europan erakutsi, bera dala orain be asieraren *izarrezko* argibide onena, izadi onen giza, zentzutasunezko *orubean*⁽¹⁾ eseri edo kokatu gaitezten.

Arriaro berriko berbea *orube* = *europa*, Griegoen ots-izti⁽²⁾ edo fonetikan, solar europeo esangura dau.

Felix Zubiagak, bere *Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo* 56 orrialdeko IVn zatitik datorrena, liburuaren 49n. orrian: *izen jakintza*⁽³⁾, *jakintzaren oroimena*⁽⁴⁾; An, Utu, Ra, Ilu, Ka, Ba eta As-en eredu nagusiren⁽⁵⁾ *izkin bateko berbak aztertu ta argitaratutako amokeran* ondorio lez esaten dau; Izkin-bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dalako.

Izkin bateraño eltzea, eredu nagusiren ozenezko⁽⁶⁾ iturria argitzea dalalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan.

Eta Euskerea eldu al dalako izkin bakarreraño, orain ezin da esan alderatzaileak⁽⁷⁾ esaten daben antzera, *Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala*.

Baita mintzoeraren oguzpeneko⁽⁸⁾ jaiokeran, bera dala berezko aitortzaile.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan *izkuntz bakarra*.

Euskereak, inguruan daukazan oraingo eta esaten daben jatorrizko diran mintzoerak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasunezko edestia.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiaren alkartzezko itzaren antolakuntzan,

(1) *Orubean* emplazamiento de ORU = SOLAR+ be = bajo. (2) *Izti* = tratado. (3) *Izen-jakintza* = onomástica. (4) *Jakintzaren Oroimena*=memoria sapiencial. (5) *Eredu-Nagusiren* = arquetipos. (6) *Ozenezko* = sonoro. (7) *Alderatza-illeak*= comparatistas. (8) *Mintzoaren oguzpeneko* = pronunciación articulada.

eta entzutezko abotsetan, irarrita daukazelako.

Zeruko⁽¹⁾ eredu nagusiaren antzezko⁽²⁾ zuzentasunetan **Izadi-iztia**⁽³⁾ dalako; gizadiaren jakintzan **gogo-iztia**⁽⁴⁾ eta **gizadi-iztia**⁽⁵⁾ da, bai **dirdaitasunezko gogarketa**⁽⁶⁾ gizartearen eredu nagusiaren antzezko zuzentasunetan, eta **teologia da**, oneik zeruko eredu nagusiagaz bat egiten dabenean.


Euskereak, Sumerioen izen jakintzazko irudimenaren eredu nagusiko arlo aundietan ta gramatikan be esku artzen dau, Ugarit ta Ejiptoren azturazko jakintzagaz jazten joan zalako.

Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna **ipuiezko asmamena**⁽⁷⁾ da, baiña eredu nagusian berba barrien **jaikunezko kokamenaren**⁽⁸⁾ **trebetasuna** be bai, arek ez dabelako galtzen abotsik, antolamenduzko zentzurik, ez aintzintasunik, bieri oso osoan aurreratuazota burutakizun barrien artu emonetan.

Izkuntz edo mintzoera gintza baten lojikak, **mitologia** beste balio dau, biak alkartu egiten diralako gaiezko Izadi onen antolakuntzan eta arri aro barriko gizonen oldozmenean.

Berbea, esan-izaneko⁽⁹⁾ elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zan, beren oiturazko arau zaletasunean.

-Dana, Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokitzeko, eta oroime-naren atzerakadarik egon ez daiten.



-Bere galduerak, danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako, ele jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako.

Liburu oneik internetetik atarateko daukan elbidea:

<http://www.todoebook.com/erroteta/>, da.



Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an

(1) Zeruko = divino. (2) Antzezko = analogias. (3) Izadi-iztia = cosmologia. (4) Gogo-iztia = alma psicológica. (5) Gizadi-iztia = antropologia. (6) Dirdaitasunezko gogarketa = meditaciòn refleja. (7) Ipuiezko asmamena = imaginaciòn mítica. (8) Jaikunezko kokamenaren = engarce ritual. (9) Esan/ izaneko = decir/ser.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar


..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



AXURI BELTZAK

Axuri beltza ona duk baina
xuria berriz ohea
dantzan ikas nai duen orrek
nere oinetara begira.

Festan dabilta salto ta brinko
pozez ertenik plazara
guk ere parte artu nai dogu
eta bagoaz dantzara.

Aupa mutilak, aupa neskatxak
baztertu barruko lotsa
alaitasunez poztu ditzagun
gorputza eta biotza.